

## **Funtsezko Jarduerak**

Gure enpresaren funtsezko jarduera kotxe elektrikoen salerosketa da, hau da, kotxeak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu eta ondoren, guk bezeroei saldu. Ez ditugu guk ekoitziko kotxeak, hasieran behintzat, gastu oso handia delako eta ez dago gure eskura kapital guzti hori.

Kotxeak erosterakoan kontuan edukiko dugu hauen prezioa eta kalitatearen harremana, ondoren gure bezeroentzat egokitzeko eta haientzat eskuragarria izan dadin.



Hornitzaileekiko harremanaz gain, garrantzitsua da guretzat bezeroekiko harremana erraza izatea. Hortaz, sareko jarduerak ere dute garrantzia gure enpresan. Izan ere, gero eta bezero gehiagok egiten dute aurreikuspen bat internet bidez, eta bertan erabakitzen dute zein den kotxerik errentagarriena haientzat.